

Goi mailako teknikarien kidegoko
Ekonomi Zientzietan Lizentziatuen
aukerako lan-poltsa

1. ariketa, zati teorikoa

A eredua

2015/02/28

- 1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN ONDORIOETARAKO, NOIZ DAGO ORDEZKARITZA OREKATUA PERTSONA ANITZEKO ADMINISTRAZIO-ORGANOETAN?**
- 1a) Sexu biek, gutxienez, % 50eko ordezkariak dutenean.
1b) Sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkariak dutenean.
1c) Sexu biek, gutxienez, % 30eko ordezkariak dutenean.
1d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 2 PROZEDURA BAT HASTEKO, IDATZI BATEK LEGEZ BEHAR DIREN BETEKIZUNAK EZ BALDIN BADITU:**
- 2a) Prozedurak aurrera egin dezake, prozeduran zehar zuzendu ahal izateko aukera bazter utzi gabe.
2b) Herritarrari zuzentzeko eska dakioko administrazioak egoki iritzi badio.
2c) Herritarrari hamar eguneko epean zuzentzeko eskatu behar zaio.
2d) Espedientea artxibatu egiten da.
- 3 DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOA. ZER DA DATU PERTSONALA?**
- 3a) Identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio babestu.
3b) Interesdunaren esanbidezko adostasunik gabe jakinarazitako edozein informazio.
3c) Identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.
3d) Pertsona jakin bat identifikatzeko behar diren datuen multzo antolatua.
- 4 ZER EGIN BEHAR DA BPG SEKTORIALAREN SERIE BAT TERMINO KONSTANTEETAN LORTZEKO, 2010 KONTUEN EUROPAKO SISTEMAREN BARRUKO UNEKO BALIOETATIK ABIATUTA?**
- 4a) Serie bakoitzari kateatutako bolumen-indizea aplikatu.
4b) Deflaktatzailearen hazkundera kendu serieen hazkundera nominalari.
4c) Uneko BPG sektoriala prezioen deflaktatzaileaz zatitu.
4d) Uneko BPG sektoriala oinarri-urtekoaz zatitu.
- 5 KONTU EKONOMIKOEN ZEIN AGREGATUTAN DU ERAGINA I+G GASTUAK KAPITAL GASTUTZAT JOTZEAK?**
- 5a) Kapital-eraketa gordinean.
5b) Barne-produktu gordinean.
5c) Ustiapeneko soberakin gordinean.
5d) Kapital-eraketa gordinean, barne-produktu gordinean eta ustiapeneko soberakin gordinean.
- 6 EKONOMIA EZBERDINEN ARTEKO BALIO ERANTSIEN KONPARAZIOAK BALIOGARRIAK IZATEKO, BEHARREZKOA DA:**
- 6a) Balio erantsi gordinen prezioen indizeen aldetik doitzea.
6b) Aldagaiak zuzentzea kanbio-tasa nominalaren arabera.
6c) Aldagaiak zuzentzea kanbio-tasa errealearen arabera.
6d) Aldagaiak zuzentzea erosteko ahalmenaren parekotasun-indizearen arabera (EAP).

7 KONTU EKONOMIKOETAN BALIO ERANTSIA KALKULATZEKO, HONELA ERABILTZEN DA NAGUSIKI JABETZAKO ETXEBIZITZAZ OSATUTAKO ETXEBIZITZEN STOCKA:

- 7a) Bakarrik hartzen dira kontuan benetan ordaindutako alokairu-errenten diru-sarrerak.
- 7b) Etxebizitza guztien alokairuagatiko errenta bat ezartzen da, eta hori balio erantsi gordinari gehitzen zaio.
- 7c) Haren balio-galtzea bakarrik hartzen da kontuan kapital-eraketa gordina kalkulatzeko.
- 7d) Ez du inolako eraginik balio erantsi gordinean.

8 ZER ERABILTZEN DA HERRIALDE BATEKO BATEZ BESTEKO BIZI-MAILA EZAGUTZEKO?

- 8a) Langabezia-tasa.
- 8b) BPG errealaren hazkunde-tasa.
- 8c) BPG nominalaren hazkunde-tasa.
- 8d) BPG erreal, per capita.

9 EKONOMIA IREKI BATEAN:

- 9a) BPGak gora egiten duenean esportazioak handitu egiten dira.
- 9b) Esportazioak BPGaren gainekoak izan daitezke.
- 9c) Esportazioak inoiz ezin dira BPGaren gainekoak izan.
- 9d) BPGak behera egiten duenean inportazioak gutxitu egiten dira.

10 OINARRIZKO PREZIOEI ERANTSITAKO BALIO GORDINAK:

- 10a) Ez ditu barnean hartzen produktuen gaineko zergak, hala nola BEZa, zerga bereziak eta antzeko beste zerga batzuk; bai hartzen ditu, ordea, produktuen gaineko diru-laguntzak.
- 10b) Barnean hartzen ditu produktuen gaineko zergak, hala nola BEZa, zerga bereziak eta antzeko beste zerga batzuk; ez ditu hartzen, ordea, produktuen gaineko diru-laguntzak.
- 10c) Ez ditu barnean hartzen produktuen gaineko zergak, hala nola BEZa, zerga bereziak eta antzeko beste zerga batzuk, ezta ere produktuen gaineko diru-laguntzak.
- 10d) Barnean hartzen ditu produktuen gaineko zergak, hala nola BEZa, zerga bereziak eta antzeko beste zerga batzuk, bai eta produktuen gaineko diru-laguntzak ere.

11 ZER AZTERTZEN DU "OKUNEN LEGEA" IZENKOAK?

- 11a) Langabezia-tasaren eta prezioen hazkundearen arteko harremana.
- 11b) Langabezia-tasaren eta ekonomiaren hazkundearen arteko harremana.
- 11c) Langabezia-tasaren eta soldaten hazkundearen arteko harremana.
- 11d) Langabezia-tasa naturalaren eta prezioen egonkortasunaren arteko harremana.

12 ZER ADIERAZTEN DU AURREZTEKO JOERA MARJINALAK?

- 12a) Aurrezpenak BPGan duen proportzioa.
- 12b) Errentaren aldaketa, unitatearen aurrezpena aldatzen denean.
- 12c) Aurrezpenak errenta erabilgarrian duen proportzioa.
- 12d) Aurrezpenaren aldaketa, unitatearen errenta aldatzen denean.

13 HEDAPEN MONETARIO BATEN ONDORIOZ:

- 13a) LM kurbak gorantz egiten du.
- 13b) IS kurbak eskuinerantz egiten du.
- 13c) LM kurbak beherantz egiten du.
- 13d) IS kurbak ezkererantz egiten du.

14 ZERK SORTZEN DITU ERRENTAREN GORABEHERAK?

- 14a) Eskaintzaren shockak.
- 14b) Erabaki politikoek sortutako shockek.
- 14c) Eskaeraren shockak.
- 14d) Eskaintzak, politikak eta eskaerak sortutako shockek.

15 PETROLIOAREN PREZIOA IGOTZEAREN ONDORIOZ:

- 15a) Ekoizpena gutxitu eta prezioek gora egiten dute, epe labur batean.
- 15b) Ekoizpena gutxitu eta prezioek gora egiten dute, bai epe laburrean, bai epe ertainean.
- 15c) Diruaren kopuru erreala handitu egiten da.
- 15d) Enpresek ordaindutako soldata erreala handitu egiten da.

16 HERRIALDEEN NAZIOARTEKO MERKATARITZARI BURUZKO HECKSHER-OHLIN TEORIAREN ARABERA, HERRIALDE HORIETAN:

- 16a) Faktore-dotazio diferenteak daude, bai eta produktuen artean faktoreok erabiltzeko erabilera-intentsitate diferenteak ere.
- 16b) Dotazio erlatibo ezberdinak daude, bai eta produktuen artean erabilera-intentsitate ezberdinak ere.
- 16c) Dotazio erlatibo berdinak daude, eta produktuen artean erabilera-intentsitate diferenteak.
- 16d) Produktu bakoitzean teknologia bera dago herrialde guztietan.

17 HONELA KALKULATZEN DA TRUKE TASA ERREALA:

- 17a) Atzerriko prezioen maila truke-tasa nominalaz biderkatuz, eta gero barne-prezioen mailaz zatituz.
- 17b) Atzerriko prezioen maila truke-tasa nominalaz biderkatuz.
- 17c) Barne-prezioen maila truke-tasa nominalaz biderkatuz, eta gero atzerriko prezioen mailaz zatituz.
- 17d) Truke-tasa nominala atzerriko prezioen mailaz zatituz.

18 HARROD-DOMAR MODELOAREN DINAMIKA KEYNESTARRAREN OINARRIZKO EKUAZIOAK DIOenez, EPE LUZERAKO OREKA EGOERAN:

- 18a) Hazkunde-tasa (g) berdintzen da aurrezteko joeraren (s) eta kapitala-produktuaren erlazioaren (k) arteko zatidurarekin.
- 18b) Kapitalaren produktibitatea berdintzen da egoera geldikorreko balio-galtzearen tasarekin.
- 18c) Hazkunde-tasa eta kapitala-lana erlazioa berdintzen dira.
- 18d) Mozkin-tasa (r) berdintzen da errentaren irabazietan parte-hartzearen (α) eta kapitala-produktua erlazioaren arteko zatidurarekin.

- 19 SOLOW-EN MODELO NEOKLASIKOAN, EPE LUZEKO OREKAN EKONOMIAK EGOERA GELDIKORRERAKO JOERA IZATEN DU. ZERGATIK?**
- 19a) Kontsumoaren balio handiena lortzen delako.
 - 19b) Kapitala-produktua erlazioak balio handiena lortzen duelako.
 - 19c) Kapitalaren produktibitate marjinala urrituz doalako, eta beraren balio-galtzea lineala delako.
 - 19d) Urrezko araua bermatzen duen aurrezteko joeraren balioa lortzen delako.
- 20 SOLOW-EN HONDARRA BI FAKTORE HAUEN ARTEKO DIFERENTZIA DA:**
- 20a) Hazkunde potentziala eta hazkunde erreala.
 - 20b) Hazkunde potentziala eta hazkunde teknologikoa.
 - 20c) Behatutako hazkundera eta hazkunde teknologikoa.
 - 20d) Behatutako hazkundera eta lanaren eta kapitalaren hazkunderari egotz dakioken hazkundera.
- 21 NOLAKOA DA HODRICK-PRESCOTT-EN IRAGAZKIAREN BITARTEZ KALKULATUTAKO OUTPUT GAP EDO EKOIZPEN ZULOAREN ZEINUA?**
- 21a) Beti negatiboa, faktore batzuk ez direlako osorik erabiliko.
 - 21b) Positiboa edo negatiboa, BPG errearen eta joerazkoaren konparazioa nolakoa den.
 - 21c) Negatiboa, ekonomia ezin baita egon bere hazkunde potentzialaren gainetik.
 - 21d) Positiboa, BPG potentzialak ezin baitu inoiz gainditu BPG erreala.
- 22 NOLA LORTZEN DA ZIKLOAREN ARABERA DOITUTAKO AURREKONTUKO SALDOA?**
- 22a) Saldo osoa doitzuz, ekoizpen-zuloarekiko diru-sarrera eta gastuen elastikotasunaren emaitzaren arabera.
 - 22b) Saldo osoa doitzuz, gastu ez-errepikarien arabera.
 - 22c) Saldo osoari egiturazko saldoa kenduz.
 - 22d) Saldo osoaren eta defizit primarioaren arteko diferentzia gisa.
- 23 BPG-AREN GAINEKO ZORPETZEAREN MURRIZKETAK NOIZ ESKATZEN DITU SUPERABIT PRIMARIOAK?**
- 23a) Interes-tasa erreala BPGaren hazkunde-tasa baino handiagoa denean.
 - 23b) Interes-tasa erreala BPGaren hazkunde-tasa baino txikiagoa denean.
 - 23c) Interes-tasa erreala eta BPGaren hazkunde-tasa berdinak direnean.
 - 23d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 24 ZEREN MENDE DAGO AURRERABIDE TEKNIKOA, COBB-DOUGLAS FUNTZIOAN FAKTOREEN GUZTIZKO PRODUKTIBITATEA (TFP) IZENENKO HONDAR GISA KALKULATUA?**
- 24a) Faktore produktiboen hazkunderaren mende.
 - 24b) Errentaren hazkunderaren mende.
 - 24c) Errenta banatzeko parametroen mende.
 - 24d) Aurreko guztien mende.

25 ZERTAN DATZA DIRUAREN ENDOGENEITATEARI BURUZKO TEORIA?

- 25a) Behin kutxako koefizientea finkatuz gero, biderkatzaileak diru-kopurua zehazten du.
- 25b) Diru-agintaritzak diru-kopurua zehazten du.
- 25c) Diruak errentaren proportzio jakin bat adierazten du.
- 25d) Diru-kopurua interes-tasaren baldintza jakin batzuetarako eskaeraren mende dago.

26 BANKU ZENTRALEN EUROPAKO SISTEMAREN HELBURU NAGUSIA PREZIOEN EGONKORTASUNA BADA ERE, BESTE HELBURU HAU ERE BADU:

- 26a) Prezioen egonkortasunarekin bateragarria den euroaren truke-tasa zehaztea.
- 26b) Nazioarteko hitzarmenen bidez, moneten gorabehera-bandak adostea.
- 26c) Batasunaren politika ekonomikoak eta helburu orokorrak bultzatzea.
- 26d) Egitura-erreformei buruzko gomendioak egitea estatu kideei, prezioen egonkortasuna hobeto bermatzeko.

27 BPG-AREN GAINEKO PORTZENTAJEAN DAGOEN ZORPETZE-MAILA EGONKORTZEKO, BEHARREZKOA DA:

- 27a) Interesen eta amortizazioen finantza-karga BPG nominala baino gutxiago haztea.
- 27b) Defizita BPG nominala baino gutxiago haztea.
- 27c) Saldo primarioa zero izatea, interes-tasa erreala eta hazkunde-tasa erreala berdinak direnean.
- 27d) Saldo primarioa BPG nominalaren tasa berean haztea.

28 2009AN LEHERTUTAKO KRISIAREN AURRETIK, EUSKADIKO EKONOMIA EUROPAR BATASUNEN EKONOMIAREN ERREGISTROEN PAREAN EDO GAINETIK ZEGOEN:

- 28a) BPG per capitan, langabezia-tasan eta I+Gren ahaleginean.
- 28b) BPG per capitan eta I+Gn, baina langabezia-tasan ez.
- 28c) BPG per capitan bakarrik; langabezia-tasan eta I+Gn inoiz ez.
- 28d) Produktibitatean bakarrik; BPG per capitan, langabezia-tasan eta I+Gn ez.

29 EUSKADIKO EGITURA PRODUKTIBOA ETA BALIO ERANTSIAREN SEKTORE PRODUKTIBOAK AINTZAT HARTUTA, ZER ESAN DAITEKE 2010EKO EUSKADIREN EGOERAZ?

- 29a) Bertako eraikuntzaren sektorea hurbil zegoen Espainiakotik, eta bertako industria hurbil zegoen Alemaniakotik.
- 29b) Eraikuntzaren eta industriaren sektoreak EB 15ekoen parekoak ziren.
- 29c) Eraikuntzaren eta industriaren sektoreak hurbil zeuden Alemaniakoetatik.
- 29d) Eraikuntzaren sektorea hurbil zegoen Alemaniakotik, eta industriarena EB 15ekotik.

30 ZER TOKITAN DAGO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2011KO EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNAREN ARABERAKO BARNE PRODUKTU GORDINA PER CAPITA, EUROPAR BATASUNA 28EN ESPARRUAN?

- 30a) Lehenengo tokian, konparazioa estatuarekin egiten bada.
- 30b) Europako lehen 40 eskualdeen artean.
- 30c) Europako azken 25 eskualdeen artean.
- 30d) Europako lehen 15 eskualdeen artean.

31 HAUXE IZAN DA 2000. URTETIK AURRERA EUSKADIKO EKONOMIAKO SEKTOREEK BARNE PRODUKTU GORDINARI EGIN DIOTEN EKARPENAK IZAN DUEN BILAKAERA:

- 31a) Industriaren ekarpena gero eta handiagoa izan da, BPGaren ehuneko berrogei izateraino.
- 31b) Bai industriak bai zerbitzuen sektoreak garrantzia galduz joan dira BPGan.
- 31c) Zerbitzuak sektorearen ekarpena gero eta handiagoa izan da, BPGaren bi heren izateraino.
- 31d) Zerbitzuen sektoreak indarra galdu du industriaren sektorearen aldean.

32 EUSKADIKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ONDARE KONTUEN EBOLUZIOA AZTERTU NAHI BADUGU, HAU DA ERABILI BEHARREKO INFORMAZIO ITURRIA:

- 32a) Euskal Estatistika Erakundea (Eustat).
- 32b) Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)
- 32c) BBVA Fundazioa eta Ivie.
- 32d) Eurostat.

33 EUSTATEKO "HERRI ADMINISTRAZIOEN KONTU EKONOMIKOAK" ERAGIKETAK:

- 33a) Euskal administrazioen eta Estatuko administrazioen informazio bateratua eskaintzen du.
- 33b) Bakarrik euskal administrazioen erakunde-unitateak hartzen ditu.
- 33c) Bakarrik Estatuko administrazioaren erakunde-unitateak hartzen ditu.
- 33d) EUSTATEk ez du "herri-administrazioen kontu ekonomikoak" izeneko eragiketarik egiten.

34 EUSKADIKO EKONOMIAREN A 38 SAILKAPENEAN, 2013KO UNEKO PRODUKZIO ADAR HANDIENEN ARTEAN, ADAR HAUEK AGERTZEN DIRA:

- 34a) Eraikuntzaren adarra eta manufaktura-industriaren hiru adar.
- 34b) Manufaktura-industriaren hiru adar eta zerbitzuen adar bat.
- 34c) Eraikuntzaren adarra, zerbitzuen bi adar eta manufaktura-industriaren adar bat.
- 34d) Manufaktura-industriaren bi adar eta zerbitzuen bi adar.

35 ZEIN IZAN ZEN 2013AN EUSKADIKO EKONOMIAREN INDUSTRIAKO BEG-ARI EKARPEN HANDIENA EGIN ZION SEKTOREA?

- 35a) Metalurgia eta produktu metalikoak.
- 35b) Makineria eta ekipoa.
- 35c) Zurgintza, papera eta arte grafikoak.
- 35d) Kautxu eta plastikoa.

36 NORK OSATZEN ZITUEN LAUROGETA HAMARREKO HAMARKADAN EUSKADIN HASITAKO KLUSTERREN POLITIKAREN OINARRIKO LANTALDEAK?

- 36a) Elkarteetako eta esportatzaile-taldeetako enpresa bazkideek.
- 36b) Beren tamainagatik erreferentziako liderrak ziren enpresek.
- 36c) Enpresek, prestakuntza-, ikerketa- eta euskarri-erakundeek eta administrazioak.
- 36d) Erreferentziako elkarte sektorialetan zeuden enpresek.

37 1999. URTEAN MONETA BATASUNEAN SARTU ZENETIK, EUSKADIKO EKONOMIAKO LANEKO KOSTU UNITARIO NOMINALEN EBOLUZIOA HONELAKO IZAN DA:

- 37a) Alemaniakoa baino hazkunde handiagoa izan da, baina Eurogunearen batez bestekoaren ingurukoa.
- 37b) Espainiakoa ekonomiaaren hazkundearen oso azpitik ibili da.
- 37c) Alemaniakoa baino hazkunde handiagoa izan da, baina Eurogunearen batez bestekoaren ingurukoa.
- 37d) Eurogunekoaren hazkundera baino nabarmen apalagoa izan da.

38 LANEKO KOSTU UNITARIO NOMINALEN EBOLUZIOAK MONETA-BATASUNEN EUSKADIKO EKONOMIAREN LEHIAKORTASUNEAN DUEN ERAGINA DELA ETA, ADIERAZI ONDORENGO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DEN ZUZENA:

- 38a) Garrantzitsua da, zeren eta finkatzen baitu ezarritako truke-tasak aldatu ezin duen lehiakortasun-prezioa.
- 38b) Ez da garrantzitsua, zeren eta soldatak barne-prezioen bitartez zuzendu baitaitezke.
- 38c) Ez da garrantzitsua, zeren eta laneko kostu unitario errealei eutsi ahal baitaie.
- 38d) Garrantzitsua da, zeren eta produktuaren banaketa funtzionala zehazten baitu.

39 NOLAKOA ZEN 2012KO EUSKADIKO EKONOMIAN EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNAREN ARABERAKO LAN PRODUKTIBITATEA ENPLEGATU BAKOITZEKO?

- 39a) EB 28koaren batez bestekoaren azpitik zegoen.
- 39b) EB 28koaren batez bestekoaren gainetik zegoen.
- 39c) Espainiakoa ekonomiaikoaren antzekoa zen.
- 39d) EB 28ko edozein estatutakoaren gainetik zegoen.

40 ONDORENGOETATIK, ZEIN EZ DA LEHIAKORTASUNAREN ADIERAZLE BAT?

- 40a) Lan-okupazioaren kostua.
- 40b) Lanaren itxurazko produktibitatea.
- 40c) Soldatapeko bakoitzeko lan-kostuak.
- 40d) Laneko kostu unitarioa.

41 EUSKADIKO AZKEN 30 URTEETAKO EKONOMIAREN KANPO MERKATARITZAK ERAKUSTEN DUEN JOERA NAGUSIETAKO BATEN ARABERA:

- 41a) Estaturako esportazioen garrantzia gutxitu egin da, eta atzerrirako esportazioen pisuaren parekatzera jo du.
- 41b) Estaurantz irekitzeko neurriak atzerrirantz irekitzeko neurriarekin parekatzera jo du.
- 41c) Estatutik datozen inportazioak eta atzerritik datozenak parekatu egin dira.
- 41d) Atzerritik datozen inportazioak Estatutik datozenak baino handiagoak dira.

42 KONTZERTU EKONOMIKOAREN ETA KUPOAREN SISTEMAREN BIDEZ LORTUTAKO FINANTZAKETAREN BALIOA DA:

- 42a) Bereganatutako eskumenen egozpen-indizearen aplikazioa.
- 42b) Presio fiskal diferentzialaren ezberdintasuna, lurralde erkidearen aldean.
- 42c) Aurreko bien batura.
- 42d) Euskadiren diru-bilketa ken elkartasunerako ekarpena.

43 ZER ESAN DAITEKE KONTZERTU EKONOMIKOAREN ETA KUPOAREN SISTEMAZ, ARRISKUAREN ALDETIK?

- 43a) Aldebakarreko arriskua du, Euskadirentzat.
- 43b) Partekaturiko arriskua du, Estatuarentzat eta Euskadirentzat.
- 43c) Aldebakarreko arriskua du, Foru Aldundientzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat.
- 43d) Ez du arriskurik, elkartasuna baitu oinarri.

44 AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ZER ESKUMEN DU EUSKADIK GIZARTE SEGURANTZAREN ALORREAN?

- 44a) Eskumen eksklusiboa.
- 44b) Ekonomia araubidearen kudeaketa bere gain hartzeko eskumena.
- 44c) Estatuko araudiaren lege-garapena bere gain hartzeko eskumena.
- 44d) Ez du bat ere eskumenik, kutxa bakarra dela eta.

45 ZER DA LURRALDE HISTORIKOEN LEGEAK DEFINITZEN DUEN ERAKUNDEEN FINANTZA GAITASUN BATERATUA?

- 45a) Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketak sortzen dituen diru-sarrerak.
- 45b) Kontzertuak sortzen dituen diru-sarrerak ken estuari eman beharreko kupoa.
- 45c) Kontzertuaren diru-sarrerak gehi Euskadiko Ogasun Orokorrarenak berarenak.
- 45d) Foru Ogasunen diru-sarrerak gehi Euskadiko Ogasun Orokorrarenak.

46 ZEIN DA KUPOAREN METODOLOGIAREN ARABERA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN EGINDAKO DOIKUNTZAREN HELBURUA?

- 46a) Konpentsatzea, esportazioen zergaren mende ez egoteagatik.
- 46b) Euskadiri egozteko inportazioen BEZari dagokion zatia.
- 46c) Azken diru-bilketa kontsumolekuari doitzea, eta aintzat hartzea esportazioen eta inportazioen trataera.
- 46d) Elkartasuna bermatzea zeharkako zergetan.

47 KUPOAREN METODOLOGIAREN ARABERA, NOLA HARTZEN DIRA ESTATUAREN DEFIZITA ETA ZORRAREN ZAMA?

- 47a) Ez dira kontuan hartzen, ez baitira Euskadiren eskumenak.
- 47b) Iraganaren zama bereganatu gabeko eskumen gisa hartzen da, baina defizita ez da kontuan hartzen.
- 47c) Iraganaren zorraren zama ez da kontuan hartzen; bai, ordea, oraingo defizita.
- 47d) Zama bereganatu gabeko eskumen gisa hartzen da, eta defizita konpentsatzen da hitzartu gabeko diru-sarrera moduan.

48 ZER ADIERAZTEN DU ERAKUNDE ERKIDEEI FORU ALDUNDIEK EGITEN DIZKIETEN EKARPENAK ZEHAZTEN DITUEN INDIZEAK?

- 48a) Estuari eman beharreko kupoa zehazten duen egozpen-indize bera.
- 48b) Lurralde historiko bakoitzeko errenta erlatiboa.
- 48c) Lurralde historiko bakoitzeko errenta erlatiboa eta diru-bilketarako gaitasuna.
- 48d) Lurralde historiko bakoitzeko errenta erlatiboa eta alderantzizko ahalegin fiskala.

49 ERRENTAREN GAINEKO ZERGA OROKORREAN 1983AN EZARRITAKO ERREKARGUA, IZATEZ:

- 49a) Hiru Lurralde Historikoetako zerga bat zen.
- 49b) Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorreko berezko zerga bat zen.
- 49c) Diru-kopuru osagarri bat zen, Foru Aldundien ekarpenen barruan.
- 49d) Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean hitzartutako zerga bat zen.

50 ZEIN DA GERNIKAKO ESTATUTUAREN 40. ARTIKULUA AIPATZEN DUEN OGASUN AUTONOMOA?

- 50a) Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomoen ogasuna.
- 50b) Lurralde historikoetako foru-ogasunak.
- 50c) Euskadiko berezko ogasuna.
- 50d) Foru-ogasunak eta toki-korporazioetakoak.

51 ESTATUAREN AURREKONTU-EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEDIAK AUTONOMIA ERKIDEGOEI EZARTZEN DIENEZ:

- 51a) Haien zorrak ezin du gainditu beraien BPGaren % 60, Europako araudiari jarraituz.
- 51b) Haien egiturazko defizita beraien BPGaren % 0.4 izango da gehienez ere, egiturazko erreformak egiten badituzte.
- 51c) Ezin dute bat ere defizit eduki, toki-korporazioek bezalaxe.
- 51d) Haien zorrak ezingo du gainditu BPGaren % 13 2020an.

52 EUSKAL ADMINISTRAZIOEN ZOR BIZIA:

- 52a) BPGaren % 60 baino handiagoa da.
- 52b) BPGaren % 30aren eta % 60aren artekoa da.
- 52c) BPGaren % 10aren eta % 20aren artekoa da.
- 52d) Euskal administrazioen zor biziaren saldoa zero da.

53 EUSKADIKO AURREKONTU-ARAU BIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINAK (MAIATZAREN 24KO 1/2011 LEGEGINTZA DEKRETUAREN BIDEZ ONARTU ZEN) V. TITULUAN AURREKONTU OROKORRAK ALDATZEKO ARAUBIDEA EZARTZEN DU; 64. ARTIKULUA BEREIZI EGITEN DITU GASTUEN ZENBATEKO OSOARI ERAGITEN DIOTEN ALDAKETAK ETA ZENBATEKO OSOARI ERAGITEN EZ DIOTENAK. AURREKONTUAK ALDATZEKO ARAUBIDE HAUETATIK, ZEINEK EZ DU ERAGINIK GASTUEN ZENBATEKO OSOAN?

- 53a) Kredituak gaitzekoak.
- 53b) Kredituak eranstekoak.
- 53c) Kredituak transferitzeko araubideak.
- 53d) Kreditu gehigarrietako araubideak.

- 54 EUSKADIKO AURREKONTU-ARABIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINAK (MAIATZAREN 24KO 1/2011 LEGEGINTZA DEKRETUAREN BIDEZ ONARTU ZEN) IX. TITULUAN LUZAPEN-ARABIDEA EZARTZEN DU. 132. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA LUZATUTAKO KREDITUEN ZENBATEKOA?**
- 54a) Aurreko ekitaldiko hasierako kredituak berriro esleituko ditu Jaurlaritzak, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren proposamenez.
- 54b) Aurrekontu Orokorren legea kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoaren lehen egunerako onesten ez bada, ulertuko da aurreko ekitaldiko hasierako kredituak zuzenean luzatu direla.
- 54c) Aurreko ekitaldiko azken kredituak luzatuko dira, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren proposamenez, Jaurlaritzak erabakitako aurrekontu-aldaketak deskontatu eta gero.
- 54d) Bukatutako ekitaldi ekonomikoko azken egunean ontzat emanda zeudenak direla ulertuko da, hots, ekitaldi horretan baimendutako transferentzia, gehitze eta gainontzeko aldaketak zenbatu ondoren zeudenak.
- 55 LURRALDE HISTORIKOEN LEGEAK:**
- 55a) Erakunde komunak eta Lurralde Historikoetako foru-organoen eskumenak zedarrizten ditu.
- 55b) Eskumenak esleitzen dizkie Lurralde Historikoetako toki-erakundeei.
- 55c) Kupoak kalkulatzeko metodologia definitzen du.
- 55d) Baliabideak foru-ogasunen eta toki-ogasunen artean nola banatu behar diren definitzen du.
- 56 KONTZERTU EKONOMIKOAREN ARABERA, ZEIN DA ORGANOA ESKUDUNA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNAREN ALORREKO KOLABORAZIO ETA KOORDINAZIO KONPROMISOAK ERABAKITZEKO?**
- 56a) Ogasun Ministerioa.
- 56b) Herri Dirubideen Euskal Kontseilua
- 56c) Kontzertu Ekonomikoaren Arbitraje Batzordea.
- 56d) Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoa.
- 57 KONTZERTU EKONOMIKOAREN ARABERA, ZERK ZEHAZTEN DU ZERGA BATEN LOTURA PUNTUA?**
- 57a) Zerga horren tasak.
- 57b) Zerga ordainarazteko administrazio eskudunak duen jardun-eremuak.
- 57c) Harmonizazio fiskalaren arauak.
- 57d) Aurreko guztiek.
- 58 EUSKADIKO OGASUN NAGUSIAREN ANTOLARAUEI BURUZKO LEGEAREN TESTU BATEGINAREN ARABERA, NORK OSATZEN DU ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALA?**
- 58a) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak.
- 58b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioek eta erakunde autonomoek.
- 58c) Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sektore publikoko fundazioek.
- 58d) Erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek.

59 AUTOMONIA ERKIDEGO BATEK PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA, BERROREKATZE PLANA EDO HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA BETETZEN EZ BADU, NEURRI HERTSATZAILE HAUETATIK ZEIN DA APLIKATZEKOA?

- 59a) Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren eskariz, gordailu bat eratzea Espainiako Bankuan, bere BPG nominalaren % 2aren balioarekin.
- 59b) Plan ekonomiko finantzarioa berriz ere prestatzea.
- 59c) Administrazio arau-hauslearen aurrekontua nahitaez murriztea % 5.
- 59d) Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari itzultzea autonomia-erkidego arau-hausleari transferitutako zerga guztiak.

60 FINANTZEN LEGEAREN ARABERA, EKITALDI BAT AMAITUTAKOAN DIRUZAINTZAKO GERAKINA NEGATIBOA BADA, ZER JARDUERA EGIN BEHARKO LIRATEKE?

- 60a) Epe luzeko zorpetzea handitzea, zenbateko horretan.
- 60b) Kopuru hori kontabilizatzea aurreko ekitaldietako emaitza negatibo gisa.
- 60c) Urte horretako aurrekontua murriztea, zenbateko horretan.
- 60d) Gehienez urte bateko iraupena duten kreditu-eragiketak hitzartzea, zenbateko hori finantzatzeko.

ORDEZKO GALDERAK

61 2013AN BPG ERREALA 900 IZAN ZEN, ETA BPG NOMINALA 1.000. BERAZ, BPG-REN DEFLAKTATZAILEA HAU IZAN ZEN:

- 61a) $1.000/900 = 1,11$
- 61b) $900/1.000 = 0,90$
- 61c) $1.000-900 = 100$
- 61d) $(1.000-900)/900 = 0,11$

62 ZEIN DA ONDASUN-MERKATUAREN OREKAREN BALDINTZA?

- 62a) Inbertsioa eta aurrezki publikoa berdina dira.
- 62b) Inbertsioa eta aurrezki pribatua berdina dira.
- 62c) Ekoizpena eta ondasunen eskaera berdina dira.
- 62d) Aurreko guztiak.

63 2013AN, EUSKADIKO EKONOMIAREN BGP-AK MERKATUAREN PREZIOETAN JOKAERA HAU IZAN ZUEN:

- 63a) % -3,2ko jaitsiera errealak izan zuen.
- 63b) % 1,7ko hazkunde errealak izan zuen.
- 63c) % 3,2ko hazkundeak izan zuen.
- 63d) % -1,7ko jaitsiera izan zuen.

64 16 URTETIK 64 URTERA BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN KALKULATUTAKO ENPLEGU TASAK ERAKUSTEN DUENEZ, 2003-2012 ALDIAN:

- 64a) Espainiako enplegu-tasa Euskadikoa baino handiagoa da, aldi osoan.
- 64b) Enplegu-tasa handitu egin da Alemanian, eta gutxitu Euskadin.
- 64c) Enplegu-tasa gutxitu egin da EB 27an.
- 64d) Enplegu-tasa hobeto ibili da Espainian, Euskadin baino.

65 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOEN ESPORTAZIOEN RANKINGA HERRIALDEKA, 2013AN, HONELAKOA IZAN ZEN:

- 65a) Estatu Batuak, Alemania, Frantzia.
- 65b) Frantzia, Alemania, Estatu Batuak.
- 65c) Alemania, Erresuma Batua, Frantzia
- 65d) Italia, Frantzia, Alemania.

66 EUSKADIKO AURREKONTU-ARAUBIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINAK (MAIATZAREN 24KO 1/2011 LEGEGINTZA DEKRETUAREN BIDEZ ONARTU ZEN) IV. TITULUAN AURREKONTU OROKORRAK PRESTATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DU; 58. ARTIKULUAREN ARABERA, AURREKONTUA PRESTATZEKO EKONOMIA-JARRAIBIDEAK HONAKO HONEK ONARTU BEHAR DITU:

- 66a) Aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak, Aurrekontu Zuzendaritzaren proposamenez.
- 66b) Jaurlaritzak, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren proposamenez.
- 66c) Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak.
- 66d) Legebiltzarreko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak.

***Bolsa de Trabajo
Cuerpo Superior Facultativo***

Opción: Licenciatura en Economía

1^{er} ejercicio, parte teórica

Modelo A

28/02/2015

- 1 A LOS EFECTOS DE LA LEY 4/2005, DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES, SE CONSIDERA QUE EXISTE UNA REPRESENTACIÓN EQUILIBRADA EN LOS ÓRGANOS ADMINISTRATIVOS PLURIPERSONALES:**
- 1a) Cuando los dos sexos están representados al menos al 50%.
 - 1b) Cuando los dos sexos están representados al menos al 40%.
 - 1c) Cuando los dos sexos están representados al menos al 30%.
 - 1d) Ninguna de las anteriores.
- 2 CUANDO UN ESCRITO DE INICIACIÓN DE UN PROCEDIMIENTO NO REÚNE LOS REQUISITOS LEGALES PERTINENTES:**
- 2a) Se continúa el procedimiento, sin perjuicio de subsanarlo a lo largo del mismo.
 - 2b) Puede pedirse al particular que lo subsane si la administración lo considera conveniente.
 - 2c) Debe pedirse al particular que lo subsane en el plazo de diez días.
 - 2d) Se archiva el expediente.
- 3 LEY ORGÁNICA DE PROTECCIÓN DE DATOS. SE CONSIDERA DATO DE CARÁCTER PERSONAL:**
- 3a) Cualquier información sensible referente a persona física identificada o identificable.
 - 3b) Cualquier información revelada sin consentimiento expreso de la persona interesada.
 - 3c) Cualquier información concerniente a persona física identificada o identificable.
 - 3d) El conjunto organizado de datos que permite identificar a una persona determinada.
- 4 PARA OBTENER UNA SERIE DEL PIB SECTORIAL EN TÉRMINOS CONSTANTES A PARTIR DE LOS VALORES CORRIENTES DENTRO DEL SISTEMA EUROPEO DE CUENTAS 2010, HAY QUE:**
- 4a) Aplicar el índice de volumen encadenado a cada serie.
 - 4b) Restar el crecimiento del deflactor al crecimiento nominal de las series.
 - 4c) Dividir el PIB sectorial corriente por el deflactor de precios.
 - 4d) Dividir el PIB sectorial corriente por el del año base.
- 5 ¿SOBRE QUÉ AGREGADOS DE LAS CUENTAS ECONÓMICAS INFLUYE LA CONSIDERACIÓN DE LOS GASTOS DE I+D COMO GASTO DE CAPITAL?**
- 5a) Sobre la Formación Bruta de Capital.
 - 5b) Sobre el Producto Interior Bruto.
 - 5c) Sobre el Excedente Bruto de Explotación.
 - 5d) Sobre la Formación Bruta de Capital, el PIB y el Excedente bruto de Explotación.
- 6 PARA QUE LAS COMPARACIONES DEL VALOR AÑADIDO ENTRE DISTINTAS ECONOMÍAS RESULTEN SIGNIFICATIVAS SE DEBEN:**
- 6a) Ajustar por los índices de precios de los valores añadidos brutos.
 - 6b) Corregir las variables por el tipo de cambio nominal.
 - 6c) Corregir las variables por el tipo de cambio real.
 - 6d) Corregir las variables por el índice de paridad de poder adquisitivo (PPA).

